

ALDI BATERAKO EGONALDIA EGOITZAN, ZAINTZAILEAK ATSEDEN HAR DEZAN

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 65+ mendekotasuna > Zaintzaileen atsedena errazteko zerbitzuak

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Mendekotasuna duten pertsonen (I., II., III. graduak) **zaintzaile nagusia eta senideak.**

Kostua

Koordainketa duen zerbitzua, egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

Baldintzak

Zaintzaile nagusia izatea.

Atsedena hartzeko **beharra**.

Errolda (12 hilabete).

Zertan datza?

Zaintzaile senideek beren etxeetan artatu ohi dituzten mendekotasuna duten pertsonen aldi baterako egonaldia egoitza-zentroetan ([2.5 fitxa](#)). Zerbitzua aktibatzen da zaintzailea aldi baterako bere funtzioa betetzea eragozten dion egoera batean dagoenean (bajan dago, atsedena hartu behar du, oporretara joan behar du...).

Norentzat?

Mendekotasuna duten pertsonen (I., II., III. mailak-25 puntu edo gehiago Mendekotasuna

Baloratzeko Baremoan) **zaintzaile nagusiak eta senideak**, atsedena behar dutenak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordinaketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Ezgaitasuna duen pertsona zaindua eta zaintzailea **etxebizitza eta udalerrri berean erroldaturik** egotea.

Etxebizitza berean **erroldatuta** egotea **12 hilabetez**.

Atsedeen hartzeko egonaldia egingo den egoitza-zerbitzuan **sartzeko baldintzak betetzea**.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen har dezan Araban](#)
- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen har dezan Bizkaian](#)
- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen har dezan Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)